

AIURRI

BETERRI-BURUNTZAKO ASTEKARIA



Emakumeen Irradaka, Andoainen, eskuetatik lotuta, borobilean dantzan

Aiztondo bailaran ohiko bilakatu den dantza-emanaldia Andoainen egingo da, estreinakoz, martxoaren 8an / 7

AIURRI

Kaldereroen etorrera, eraberrituta

Aurtengo edizioan, aldaketak izan dira ibilbidean eta egitarauan: Arrate pilotalekuaren kanpoaldetik abiatuko da eta, Goikoplazan, txokolatea banatuko dute. / 6



"Betiko eskertuta goaz zuekiko", Urrietako Itxaso arrandegikoen agurreko bertsoak / 5



Isidro Langararen erakusketa mamitsua ikusgai dago, asteotan, Bastero Kulturgunean / 8-9

Eguzkik zuhaitz landaketari ekingo dio, larunbat honetan. Otietan jarri dute hitzordua / 3

"Esperando a Godot" antzezlan klasikoa, igande honetan Sarobe arte eszenikoen gunean / 15

berria

ERREMONTE
TXAPELKETA 2025

OTSAILAK 22 | 16:30ETIK AURRERA
LARUNBATA | GALARRETA JAI ALAI
HERNANI



SARRERAK

1. PARTIDA:
ARLUZIAGA • MARTIRENA vs SUSPERREGI • APEZETXEA

2. PARTIDA:
URRIZA • JUANENEA vs SEGUROLA • AZPIROZ

3. PARTIDA:
GOIKOETXEA V • GOIKOTXEA VI vs GURRUTXAGA • ESKUDERO

ORIA MENDI BIZI ERREMONTEA | PAPELERA GIPUZKOANA DE ZICUAGA, S.A.U. | Orona | HAIN GIPUZKOA | sukia | VOLVO Auto Suecia | AIURRI



**AIURRIREKIN
BATERA**

2025

Kantu liburuakka

MIZPIRADI 943 59 39 54
SAGARDOTEGIA

Leizotz, 14 - ANDOAIN - www.mizpiradi.eus

sagarra, sagarrondoak, sagardoa

gure lurrari estuki lotuta doa

AMDOA ERRETA
ANDOAINO USALA

sagardoa route

**EZ ZAITEZ
EROTU!**

HEMENDIK Aurrera ERRESERBATU
ZURE MAHAIA ELIKI ERTEAN

www.sagardoa.eus

943 336 811 - info@sagardoa.eus

Zatoz gure sagardotegira!
Erreserbak. Tf: 943 55 49 17
Web: altunasagardotegia.eus

ALTUNA

Galarraga baserria, 5. Lategi. Urnieta

BURUNTZALDEA, sagardoaren lurraldea
KUIPELA, sagardoaren hotela
HK10, sagardoazaleen logela

HOTEL
HK10
HOTELA

Hotel K10
943 337 357
info@hotelk10.com
Erratzu industrialdea. Urnieta

943 59 19 68

GAZTANAGA
SAGARDOTEGIA

www.gaztanaga.eus
info@gaztanaga.eus

Irurain etxea
Buruntza
auzoa
ANDOAIN

O! OIANUME
SAGARDOTEGIA

OIANUME
SAGARDOTEGIA - JATETXEA

oianume.com/eu - oianume@oianume.com
943 55 66 83 Ergoien, 18 - Urnieta

EULA

TOLARE SAGARDOTEGIA
URNIETA

943 552 744 - 647 437 703

www.eulasagardotegia.com

LARREGAIN
TOLARE SAGARDOTEGIA

943 555 846 - 616 287 867

Ereñotzu
auzoa, 58
Hernani

larregain.sagardotegia@hotmail.com

TXOKOTIK ZABALERA

UNAI GAZTELUMENDI ARANDIA MARRAZKILARIA

ZER
PRENTSA!

POSTONTZIA

VERONICA REYES

Lagun iezaguzu gurpil-aulkiko futbol inklusiboa ikusarazten!

Irakurle agurgarriak, Veronica naiz, Iren Duchenneren distrofia muskularra duen haurraren ama. Nire desiorik handiena da nire semea zoriontsu izatea eta bere ametsak bete ahal izatea. Bere pasio handienetako bat futbola da, eta ahal dugun guztia egiten ari gara kirola erabat bizi ahal izateko. Lehen urratsak egiten ari gara desgaitasuna duten pertsonentzako futbol talde inklusibo bat osatzeko gurpil-aulkian. Powerchair Football kirol zirrargarria munduko hainbat lekutan ari da hazten. Euskal Herrian oraindik oso zabaldua ez badago ere, gure helburuetako bat da hemen ere haztea. Angelun talde bat dago, Handysport izenekoa, eta harekin harremanetan gaude. Gainera, duela gutxi klub bat sortu da Nafarroan, Pamplona Bulls izenekoa. Zuen laguntza behar dugu proiektu hau Gipuzkoan errealitate bihurtzeko!

Gure helburua da Gipuzkoan talde bat sortzea eta kirol inklusibo hori sustatzea, pertsonak aktibo mantentzeko aukera ematez gain, inklusioa, talde-lana eta norberaren hobekuntza bezalako balioak ere sustatzen dituen.

Amets hori errealitate bihurtzeko, ezagutarazi egin behar dugu, eta hemen eskatzen dugu zure babesa. Gustatuko litzaziguke zeuen plataformen bidez ekimen hau zabaltzen lagunduko bazenigute, gizarteari pertsona guztiek, beren gaitasun fisikoak alde batera utzita, kirolaz gozatzeko, lagunak egiteko eta trebetasun berriak garatzeko espazioak sortzearen garrantzia erakusteko.

Informazio gehiago nahi baduzue, edo, istorioa zabaltzeko interesa baduzue, jar zaitezte gurekin harremanetan. Hitz, irudi eta keinu lagungarri bakoitzak apur bat gehiago hurbiltzen gaitu gure helburura: gurpil-aulkiko futbola Gipuzkoan ere errealitate bihurtzea.

Kontaktuak:

* Emaila: futbolaaulkielektriakoaneus@gmail.com

* Telefonoa: 679 544 253

Eskerrik asko inklusio eta itxaropen mezu hau zabaltzen laguntzeagatik. Agur bero bat.

**"DESGAITASUNA
DUTENENTZAKO
FUTBOL TALDE
INKLUSIBO BAT
SORTU NAHI DUGU"**

**"ZUEN LAGUNTZA
BEHAR DUGU
GIPUZKOAN
ERREALITATE
BIHURTZEKO!"**

"Plaza hutsa", Sortu alderdiaren ekimena, Andoaingo Basteron

Sortu alderdiak Andoainean egingo du aurtengo "Plaza Hutsa" izeneko ekimena, "herrigintzan lanean ari diren ezkerriar eta independentisten urteroko topagunea". Goizeko 11:00tan hasita hainbat solasaldi egingo dituzte: Euskara, Euskal Herria eleaniztun eta kulturantzunean; Kulturarteko hezkuntzari 360 graduko begiradak; Ekonomi-grazioa: migrazio prozesuen arrazoi eta ondorio ekonomikoak; Inklusioa eraikiz. Esperientzia publikoak eta komunitarioak ezagutzuz; eta erreakzio autoritarioa eta arrazakeria.

Euskal Herrian zabaltzen ari den ziklo politiko berria herrigintzatik nola indartu landuko dute, jatorri eta kultur aniztasuna gai nagusitzat hartuta. Aurkezpenean adierazi zuten, "Datozen urteetan immigrazioaren fenomenoari eta horren ondoriozko jatorri eta kultur aniztasunari emango diogun erantzunak egingo gaitu herri gisa".

KOMUNITATEA

EGUZKI ANDOAIN

Bertako zuhaitzen landaketa herrikoia

Eguzki Talde Ekologista eta Antinuklearrak zuhaitz-landaketa herrikoia antolatu du, otsailaren 22an. Landaketa Leitzarango bailara dagoen Muntto tontorraren magalean egingo dugu, Andoaingo Mendiak izeneko herri lurretan, iazko lur-sailaren ondoan. Landaketak bi helburu nagusi ditu:

- Basoen garrantziaz kontzientzia hartzea, egoera onena egoteak gizarteari ematen dizkion onura ugariaz jabetu gaitzen.
- Orain arte herri lurak kudeatzeko era aldaketak aldarrikatzea.

Bide horretan, landaketa hektarea bat pasatzeko lurzorua batean egingo dugu, aurreko urteko lursailaren parean. Aurretik pinudia zegoen eta guk espezie anitzak landatuko ditugu, haritza eta pagoez gain, elorria, haltza, gaztaina eta abarrek batera, etorkizunean baso atlantiarra osatzen lagunduko duten espezieak, Leitzarango bailaran iraganen ugari zen baso mota.

Otsailaren 22an, larunbatarekin, egingo dugun landaketa horretarako Otietako tunelaren sarbide ondoan geratu gara goizeko 09:00tan. Ordu bete eskaseko ibilbidea dago eta mendiko arropa eta botak eramatea gomendatzen dugu. Guk jan edanak eramango ditugu baita tresnak ere. Hala ere, norbaitek aitzurra edo/eta palaren bat badu, ekartzea gomendatzen dugu. Bukatzeko adierazi, 688 662 532 telefono-zenbakira deituta izena eman dezakezen whatsapp taldea dugula edozein galdera egiteko edo azken berriak jasotzeko.

Bizitzeko Andoain eraikitzen! Bizitzeko Lurra eraikitzen!

Edukiontzien erreketak

Asteartetik asteazkenerako gauean, goizaldeko orduiak aldera, Aiztondo kaleko 12. zenbakiaren ondoko edukiontzi-sortak su hartu zuen. Garrak itzaltzeko suhiltzaileak bertaratu ziren. Lehen baino maiztasun gutxiagorekin izaten ari dira erreketak, baina oraindik ez da erabat eten. Arrisku handikoa da, eta kalte handiak eragiten ditu.



Lasarte-Oria eta Urnieta arteko bidegorria eraikitzekeo egitasmoa

Plazaolako trenbidearen ibilbidea baliatuta, Lasarte-Oria eta Urnieta lotuko dituen bidegorriak 1.200 metroko luzera izango du eta 1,5 milioi euroko inbertsioa aurrikusi dute. Aurreko astean egin zuten egitasmoaren aurkezpen-ekitaldia

Xabier Lasa URNIETA

Urnieta eta Lasarte-Oria herriak lotzeko bidegorriaren proiektua aurkeztu zuten, aurreko astean. Gipuzkoako Foru Aldundiko Jasangarritasuneko diputatu Jose Ignacio Asensiok, Lasarte-Oriako alkate Agustin Valdiviak, Urnieta alkate Jorge Seguradok eta Herme Gonzalez Urnieta PSE-EEko bozeramaileak hartu zuten parte hedabideen aurreko agerraldian.

Plazaolako trenbide zaharraren bidea baliatuko dute, eta lanak amaitzean Lasarte-Oriako Azkorte bidea Urnieta bide-sarearekin lotuta geratuko da: "Espazio segurua eta irisgarria izango dute oinezkoek zein txirrindulariek", adierazi zuten agerraldian.

Xehetasunetan sartuta, drainatze-sistema eraginkorra, argiztapen modernoa eta pasabide bat egokitzea aurreikusten dute. Oztarango tunel hori txanpinoiak hazteko erabiltzen da, egun. Orotara, 542 metroko luzerakoa da.

Jose Ignacio Asensio Jasangarritasuneko diputatuak, Gipuzkoan mugikortasun jasangarriago bateratu bat begira, azpiegitura berri horrek duen garrantzia azpimarratu zuen: "Bidegorri hori eraikitzeak, Lasarte-Oria eta Urnieta arteko lotura hobetzeaz gain, bizikletaren eta oinezkoen garraioaren erabilera sustatuko du, bizi-ohitura osasungarriak sustatuz eta emisio kutsatzaileak murrizten lagunduz".

Jorge Segurado Urnieta alkateak "herriko zein Beterri-Buruntzako mugikortasun jasangarria, aisialdia eta turismoa sustatzeko" proiektu estrategikoa dela gaineratu zuen: "Plazaolaren ibilbide zaharraren zati honi



Gonzalez, Valdivia, Asensio eta Segurado, aurkezpen-ekitaldian. AIURRI

esker, Iruñea eta Donostia lotzea ahalbidetuko da, are gehiago, Frantziarekin konexioa egitea eta bertara iristeko aukera eskainiko da. Gainera, naturara hurbiltzen gaitu eta paisaia eder hauetaz gozatzeko aukera eman digu".

Eraikitze-lanen esleipena 2025ean egitekoak dira

Agerraldian izan ziren diputatuak eta bi alkateek azaldu zuten, Aldundiak datozen astetan ekingo dio proiektuaren izapidetze tekniko eta administratiboari, eta, eragindako lurra erabiltzeko egin beharreko kudeaketei ere. Aurreikusita dagoenez, obrak 2025ean lizitatu ahal izango dira, lanak urte

LANAK AMAITZEAN, IRUÑEA ETA DONOSTIA ARTEKO BIDEGORRI-SAREA LOTUTA GERATUKO DA

horren amaieran edo 2026ko hasieran ekiteko. Zortzi hilabetez luzatuko direla obrak, iragarri zuten.

Bidegorriaren ibilbidea hiru zatitan banatuko da:

- **Lehen zatia, 224,9 metroko luzerakoa:** Azkorte bidea tunelaren iparraldeko sarbideraino, zolatutako trenbide-plataforma zahar baten gainean.
- **Bigarren zatia, 542 metroko luzerakoa:** Plazaola tuneletik igarobidea, egiturazko segurtasuna eta drainadura bermatzeko obrak egin ostean.
- **Hirugarren zatia, 502 metroko luzerakoa:** tunelaren hegoaldeko sarbideetik Urnieta udal-bide-sarearekin lotzeraino.

OZTARANGO TUNELA ITXITA DAGO ETA, EGUN, TXANPINOIEN HAZTEGI BAT DAGO BERTAN



Txanpinoien haztegia dago, egun, itxita dagoen tunelean. AIURRI

Iragarpen ugari denbora tarte txikian

Plazaolako bide berdea erabat osatzeko geratzen den Urnieta-Lasarte-Oria arteko egitasmoak gora behera handiak izan ditu azken urteetan. Honatx, azken urteotako kronologia laburra:

2022ko apirila

Foru Aldundiko Mugikortasuneko eta Lurralde Antolaketako Rafaela Romero Diputatuak iragarri zuen Europar Batasunaren NextGeneration funtsetatik diru-laguntza eskatuko zuela bide berdeen sareari lotutako hiru proiektuentzat: Plazaola-Leitzaran trenbidearen bide berdea, Vasco-Navarro trenbidearen bide berdea eta Urolako bide berdea. Andoain, Lasarte-Oria eta Urnieta Beterri-Buruntza eskualdeko udalek babes adierazi zioten hautagaitzari.

2022ko abendua

Javier Hurtado Eusko Jaurlaritzako Turismo, Merkataritza eta Kontsumo Sailburuak jakinarazi zuenez, Europako funtsek finantzatuta, hiru egitasmoetarako 2.560.000 euro bideratu behar zituzten.

2023

Foru Aldundiaren aurrekontuetan 130.000 euroko partida bideratu zen Lasarte-Oria eta Urnieta arteko lotura-lanak egiteko.

2023ko azaroa

EH Bilduko Batzar Nagusietako ordezkariak eta Lasarte-Oria eta Urnieta bozeramaileek Oztarango tunelaren aurrean egindako agerraldian salatu zuten Foru Aldundiko Jasangarritasun sailak Plazaolako bide berdearen azken zatia egikaritzeari uko egin ziola, 2024ko aurrekontuetan partidarik ez baitzen ageri.

2024

Foru Aldundiaren aurrekontuetan ez zen diru-partidarik bideratu lotura horretarako.

2025eko otsaila

Gipuzkoako Foru Aldundiko Jasangarritasun Departamentuak, Lasarte-Oria eta Urnieta lotzeko bidegorria eraikitzekeo, 1,5 milioi euro bideratuko dituela iragarri zuen.



Alfontso, Nekane eta Aingeru Itxaso arraindegian. ITXASO

"Betiko eskertuta goaz zuekiko", Itxaso arrandegiko enagurra

Erretiroa hartuko dute datorren martxoaren 1ean eta, aurretik, agurreko mezua igorri nahi diete urnietarrei

Erredakzioa URNIETA

Idiazabal kaleko arraindegi eza-guneko arduradunek, Aiurri astekariaren bitartez, agurreko mezua igorri nahi diete urnietarrei. Eta, mezuarekin batera, bi bertso eder prestatu dituzte. Honatx, mezua eta bertsoak: "Itxaso arrandegiko lankideok erretiroa hartuko dugu datorren martxoaren lean. Eskerrak eman nahi dizkizuegu herritar eta bezero guztiei, zuen sukalde eta platerak betetzeko urte guztiotan gudan jarritako konfiantzagatik; ia 40 urteren ostean arrandegiak zabalik jarraituko du eta, ea beste hainbeste ere egiten dituen. Mostradorearen beste aldean ikusiko gara. Mila-mila esker bihotzez. Alfontxo, Nekane eta Aingeru"

Agurreko bertsoak

Yurramendin hasi ta Idiazabal gero, ia berrogei urte zabaldu ezker, Pasaitik Urnietara goizero-goizero legatz, lupi, barbarin, antxoa ta mero. Hondartzarik ez baina "Itxaso" hor bego.

Erretiroa hartzeko garaia da, kitto! Beti eskamak kentzen ez gera biziko. Komertzio txikia ez ote da hilko. Bertako bezeroak eutsi horri tinko! Betiko eskertuta goaz zuekiko.

Prest du Poxta Zaharrek Inauterietako egitaraua

Martxoaren lehen asteburuan ospatuko dira Inauteriak. Egun osoko egitaraua prestatu du Poxta Zahar elkarteak

Erredakzioa URNIETA

Egurdian ekingo diote ospakizungiroari, 12:00tan, poteoan, Frontoi tabernatik hasita. Ondoren, 14:30ean bazkaria egingo dute Plazido Muxika plazan, jolasen aurretik. Hala, arratsaldean Bix-

kor txarangak borobilduko du egitaraua. Antolatzaileek iragarri dutenez, tiketak salgai daude, jada, Frontoi eta Matxo tabernetan, 15 euroko prezioan. Horrez gain, nork bere edalontzia eraman beharko duela iragarri dute.

Udalarekin hitzarmena

Urnietako Udalaren eta Gipuzkoako Odol Emaileen elkartearen arteko elkarlanak aurrera darrai, herrian odola emateko aukera bermatzeko. Hitzarmen berriaren sinaketan parte hartu zuten Consuelo Frutos Udaleko Gizarte Zerbitzuetako zinegotziak, Sabin Urcelay Gipuzkoako Odol Emaileen elkarteko presidenteak eta Izaskun Miner Urnietako boluntarioak.



AIURRI

BERTSO AFARIA URNIETAN

ELI PAGOLA

UNAI GAZTELUMENDI

MARTXOAK 21 - 20:30 - ALTUNA SAGARDOTEGIA

MENUA: TXORIZOA, BAKAILAO-TORTILA, TXULETA ETA POSTREA

35€*

TXARTELAK SALGAI: MATXO TABERNA, KANTOI TABERNA, AIURRI.
EROSTEKO AZKEN EGUNA: MARTXOAK 18, ASTEARTEA

*BERTSOLARIAK AIURRIREN ESKUTIK



Aratz Otegi Kaldereroen konpartsaren antolaketan murgildu da, asteotan. AIURRI

"Herritarren parte-hartze aktiboa behar-beharrezkoa da"

ARATZ OTEGI GORA KALETXIKI TXARANGAKO MUSIKARIA, KALDEREROEN ANTOLATZAILEA Txarangako musikariak Ondarreta Herri Eskolako Kalderero txikiekin irtengo dira ostiralean eta, helduen Konpartsarekin, larunbatean

Xabier Lasa ANDOAIN Nola doa larunbateko Kaldereroen Konpartsaren antolaketa?

Konpartsa polita, ikusgarria aterako dela iruditzen zaigu, eta Andoaingo kaleetan jai giroa zabalduko duela arratsalde, aurreko urtetan bezala. Baina kostata ari gara osatzen festa. Egia esanda, gazteak duela ez asko iritsi gara txarangaren zuzendaritzara, eta denbora askorik eduki gabe heldu behar izan diogu antolaketari, nahiko presaka. Hori, batetik, baina,

bestetik, esan behar da ate ugari jo ditugula elkarlanean jarduteko proposamenarekin, eta ez dugula jaso nahi genukeen bezainbat babes. Eta zer pentsatua ematen du horrek.

Zer pentsatua diozu...

Aurtengo jaiak igaro eta gero, etorkizunean, hausnarketa-prozesua ireki beharko dela iruditzen zaigu. Udala, herriko kultur elkarteak, interesa duten gizabanakoak, musikariok... bildu beharko gara eta guztiok ere geure buruari galdetu ea bene-

tan merezi ote duen Andoaingo herriak halako festa edukitzea, ea ba ote daukagun interesa festa horrekin, eta baiezkoa bada erantzuna, ea noraino inplikatzeke gogoia daukagun...

Printzipioz, Gora Kaletxiki txaranga prest legoke Konpartsaren jaiak kudeatzeko edo interesa duen edonorekin elkarlanean jarduteko. Baina ez da ahaztu behar jai herrikoia dela Kaldereroen Konpartsa, eta herritarren parte-hartze aktiboa eskatzen duela. Alde horretatik,

beharbada, txaranga ez da egokiena parte-hartzaileak mugitzeke; horretarako, errazagoa behar luke izan jada bazkideak edo jarraitzaileak dituen edozein eratako elkarte bat.

Aurtengo Kaldereroen jaira itzulita, kontaguzuz zer nolako berrikuntze-kin datorren.

Ama Kandida etorbideko obrak direla eta, ohikoa den ibilbidea aldatu behar izan dugu, pixka bat, eta hortik datoz ibilbidearekin egin behar izan ditugun aldaketak, batik bat. Hain zuzen, 16:15etan zahar egoitzan hasiko da konpartsaren ekitaldia, baina karrozarik gabe. Bertako egoiliarrei lehenbiziko saioa eskainiko diegu. Ondoren, 16:45ak aldera, Arrate plazatik abiatuko da Konpartsaren kalejira, karrozarekin, oraingoan. Zartagiak eta mailuak musikaren doinupean astinduz, Goikoplazara iritsiko gara, eta bertan kanpalekua ezarriko dugu. Konpartsak betiko erreperatorioko saioa egiteaz gain, balkoitik pregoi edo diskurtsoaren txanda ere izango da Erreginarene eta bere laguntzailearen eskutik.

Ondoren, txokolatiaz gozatzeke aukera izango dugu parte-hartzaile guztiek; Andoaindarrak elkarteko kideek hartu dute txokolatea egin eta banatzeko ardura, eta eskertzekoa da erakutsi duten prestutasuna.

Behin plazan ordu erdiko egonaldia eginda, Zumea plazara abiatuko gara, Kale Nagusian barrena.


Hori bai, hiletarik egokituz gero, zertxobait aldatuko litzateke ordutegia.

Zer esango zenieke Konpartsan parte hartu nahi duten herritarrei?

Irekia da jaiak, noski, eta festazale eta kaldererozale orori zabaltzen diegu gonbidapena, Arrate plazara azal daitezten. Hortik abiatuko da Konpartsaren kalejira.

Zahar egoitzakoa saio berezia izango dela iragarri duzue.

Bai, eta uste dut azpimarratzekoa dela berriki hil den Xabier Mujika Larrañagari egingo diogun omenalditxoak. Oso pertsona maitagarria izan da Mujika Andoainen, eta pena handia sentitu dugu guztiok. Umeak asko maite zituen, festazalea eta kaletarra zen oso, bazekien kaleran umorea zabaltzen bere presentziarekin, eta, horregatik, aitormen sinbolikoa egin nahi ko genioke keinu xume bat egi-



lazio Kaldereroak. AIURRI

Kaldereroak, Andoainen, egitaraua

Kalderero txikiak

15:00 Ondarreta Herri Eskolaren kalejira.
17:00 Festa Ludotekan: Karaokea eta kaxa magikoa.
Otsailak 21, ostirala.

Kaldereroak

16:30 Musikariaren emanaldia adinekoen egoitzan.
17:00 Konpartsa Arrate plazatik abiatuko da. Ibilbidea: Arrate, Goikoplaza, Zumea plaza.
18:00 Kanpalekua, txokolata-beroa eta adierazpena Goikoplazan.
Otsailak 22, larunbata.

nez, bere bizitokia izan zenaren atarian.

Larunbateko ekitaldiaren bezperan, Ondarreta Herri Eskolako konpartsa ateratzen da kaleak alaitzera. Hitzordu horri ere eutsiko dio Gora Kaletxiki txarangak.

Betiko eran, ostiralean, 15:15ak aldera eskolako aterpetik irten eta Zumea plazarako joan etorria egingo dugu haur, irakasle eta gurasoekin batera. Oso ekitaldi polita izaten da, haurrek gozatu egiten dute, eta merezi du ekitaldi horri ahal dugun ekarpena egitea geure aldetik.



Aiztondo bailaran ohikoa da martxoaren 8ko manifestazioari ekin aurretik Irradaka dantza egitea. AIURRI

Borobilean dantza egiteko gonbita

Martxoaren 8a hamabost egun barru izango da eta, egunotan, agendari erreparatu beharra dago. Dagoeneko eskuragarri daude emakumeen afarirako txartelak. Bestalde, hastear dira Emakumeen Irradaka dantza prestatzeko entseguak

Jon Ander Ubeda ANDOAIN

"Berdintasunaren Oihalak" ekimenaren ostean dator "Emakumeen Irradaka" Andoainera, eskutik helduta egiten den dantza. Taldea, batasuna, armonia... Balio indartsuak iradokitzen ditu emanaldiak. Aiztondo bailaran, aurreko urteetan, ohiko bilakatu da. Diotenez, "oso pauso errazekoa" eta "denek parte hartzeko modukoa" izango da. Andoain lehene aldiz egingo dutenez, emanaldia prestatzeko entseguak deitu dituzte, otsailaren 24an eta 25ean iluntzeko 20:00tan hasita. Olagainen egingo diren entsegetara deituta daude parte hartu nahi duten emakume guztiak. Irradaka martxoaren 8an egingo da, Goikoplazan, 12:00tan hasita. Segidan, manifestazioari ekingo diote. Egunotan, entseguak gain, afarira joateko txartelak daude eskuragarri.



Iaz, afaria Zumea plazan egin zen. Aurten, berriz, Allurraldeko karpa estalian. AIURRI

Martxoaren 7an, afaria

Afaria, aurten, Allurralde Kiroldegiaren eta Ubitarte zelaia-aren artean dagoen karpan izango da. Bakoitzak bere janaria eraman beharko du. Udalaren kontu platerak, edalontziak, mahai-tresnak, ahozapiak, ura

eta kafea. Afarian izena emateko epea zabalik da, otsailaren 28ra bitarte. Behin izena emanda, pultsera morea eskuratu behar da Berdintasun Sailak dituen bulegoetan. Afalostean, kulturartekotasuna sustatzeko musika-emanaldia izango da.

Martxoaren 8a Andoainen



Aurreko astean egin zuten Andoaingo udaletxean. UDALA

Aurkezpen-ekitaldia Andoaingo martxoaren 8ko egitarauaren aurkezpen-ekitaldira udalerriko eragile ugari hurbildu ziren. Haizea Barandiaran zinegotziak eta lanire Huitzi udal teknikariak xehetasunak eman zituzten.



Manifestazioa Andoaingo kaleetan, iazko martxoaren 8an. AIURRI

Manifestazioa Martxoaren 8an, Irradaka amaituta, mugimendu feministak deituriko manifestazioa abiatuko da Goikoplazatik Zumea plazarantz. 12:30ean hasiko da manifestazioa, eta azken urteotako joerari eusten bazaio, jendetsua izango da.



Nerea Uralde izan da aurtengo kartelaren egilea. AIURRI



Isidro Langara, garai hartan, Golen Erregea ezizenez ezaguna. LANGARA-GUERRERO ONDAREA

Langararen itzala luzea da

FUTBOLA Isidro Langararen ibilbidea miragarria da. 2025era iritsita, Lehen Mailan hiru partidatan jarraian hat-tricka lortu duen jokalaria bakarra da. Golegile aparta, hiru urtez jarraian, ligako Pitxitxi izan zen. Erakusketa ederra ikusgai dago Basteron



Alkatea eta Udal Artxiboko kideak, liburuaren egileak eta Langararen etxeokoa izan ziren aurkezpen-ekitaldiko hizlariak. AJURRI

Jon Ander Ubeda ANDOAIN
Futbolzale amorratuek historia zirraragarria aurkituko dute, egunotan, Bastero Kulturguneko erakusketa-aretoan. Isidro Langara Andoaingo futbolariarengan gorpuztuta, Udal Artxiboak mimoz prestatu du eta bidelagun izan du Itxaso Mendiluze komisarioa, bisitariaren esperientzia hobetzeko lan bikaina egin duena. Futbola maite duenarentzat bikaina da, horrela laburbildu daiteke erakusketa. Baina ez hori bakarrik, kirolaria bere dimentsioan hobeto ezagutzeko eta historian barrena arakatzeko esperientzia aproposa da. Dena esatera, erakusketari lotuta, Andoaingo etxebizita guztietara iritsi da Langararen biografia jasotzen duen argitalpen zaindua. Ale batzuk eskuragarri daude bertan. Honaino iritsita, izena ezezazuna zaionarentzat, nor izan

zen Isidro Langara? Golarekin harreman estua izan zuen futbol jokalaria. Eta, 2025era iritsita, munduko goleatzaile onenen olinpoan goi-goian jarraitzen duena. Izan ere, bere markak harrigarriak dira: Futboleko Historiaren eta Estatistiken Nazioarteko Federazioak garai guztietako espainiar golegilerik onena izendatu zuen. Ez baita txikia lortu zuena: hiru herrialdetan –Espainia, Argentina eta Mexiko– lehen mailako golegile nagusi izan den lehen jokalaria, mundu osoan; Espainiako Lehen Mailan segidako hiru denboralditan golegile na-

MUNDUKO GOLEATZAILE ONENEN OLINPOAN GOI-GOIAN JARRAITZEN DU ISIDRO LANGARAK

gusi izan den lehen jokalaria; Espainiar futbolaren Lehen Mailan historiako gol-ratio onena duen jokalaria (1,17 gol partida bakoitzeko); Espainiako Lehen Mailan 100 gol sartzeko partida gutxien behar izan dituen futbolaria (80 partida); Espainiako Lehen Mailan segidako hiru partidatan hat-trick egitea lortu duen jokalaria bakarra; 1934ko Munduko Txapelketako hamaiakako idealean sartu zen; Espainiako selekzioaren historian golen batez besteko onena duen jokalaria (1,42 gol partida bakoitzeko); Golen errekorra (5) Espainiako selekzioaren partida ofizial batean. Estatistika horiekin, garaiko AS eta MARCA egunkarietako azaletan agertu ohi zen Langara. Egungo Puteillasen edo Haalanden pareko izan zen Langara. Futbolaren historian izar bat jaio zen An-

doainen, eta urteak igarota ere, haren marka onenak indarrean dira. Sekulakoa! Esan bezala, asteotan, erakusketa ederraz gozatzeko aukera dago Bastero Kulturgunean: argazkiak, objektuak, hemeroteka, bideoa... opa-roa da, oso. Bada audio bat ere, Eitb-k utzitakoa, zeinean Isidro Langara euskara ederrean hizketan ari den. Asteotako erakusketa amaituta, Langararen ondare hori guztia Real Oviedo fundazioaren esku utziko dute. Ez da baztertzeko, Oviedon bertan, Langarari begirako erakusketa egonkorra zabaltzea.

REAL OVIEDO FUNDAZIOAREN ESKU UTZIKO DUTE ERAKUSKETAN IKUSGAI DAGOENA

Larunbatz geroztik, zabalik
"Andoain herria zorretan zen Isidro Langara Galarragarekin", horiek izan ziren Andoni Alvarez alkatearen lehen hitzak, gainerako hizlariak hitza eman aurretik. Erakusketa ez da Andoaingo Udaletik bideratutako ekimen bakarra izan. Ez da ahaztu behar herrigunea eta Allurralde kiroldegia elkar lotzen dituen zubiak Langararen izena daramala. Allurralde aldean, egunotan, haren omenezko murla ageri da. Muralaren albo banatan, Langararen marka onenak jasotzen diren plaka bana dago.

"Benetako altxorrak topatu ditugu erakusketa antolatzen hasi ginenean, bere familiak txukun eta kontu handiarekin gorde duena". Marta Trutxuelo erakusketaren xehetasunetan murgildu zen: "Objektu paregabeak aurki daitezke, bai, baina



Nazioartean ibilbide luzea egin ondoren, Isidro Langarak sorterrian egin zituen azken urteak. Seme-alabarik ez zuen izan, baina bai iloba ugari! Gehien-gehienak Andoainen izan ziren, aurreko larunbatean. AIURRI

Langaramania gaurdaino iritsi da



Mario Conti, 1999az geroztik Irunen bizi den argentinarra. AIURRI

Irundik espreski irekierara hurbildu zen zaletua Langararen itzal luzea gaurdaino iritsi da, bereziki, Argentinako San Lorenzo de Almagro eta Real Oviedo futbol taldeetan. Messiren parekoa da haientzat eta harekiko miresmena gaurdaino iristen da. Horren isla da Andoaingo irekiera-ekitaldira hurbildu zen Mario Conti argentinarra. Irunen bizi bada ere, pasioz bizi ditu San Lorenzo eta Langaramania.

batez ere pertsona da erakusketan honetan protagonista". Asier eta Junkal Guerrero Langararen oinordekoei esker berezia adierazi zien, osaba-aitonaren on-darearekin hain eskuzabal jotkatzeagatik.

Miguel Sanz eta James Harriman Oviedotik etorri ziren aurkezpen-ekitaldira. Bien artean idatzi dute Andoain osoan banatu den liburuxka. Sanz Real Oviedo fundazioko kide da eta James Harriman Oviedon hiritartu den kazetaria. Biak ala biak Langararen zaletu amorratuak dira. "Urteak igarota, Langara oso maitatua zen Oviedon. Urte asko dira baina oraindik ere jende askoren gogoan dago", adierazi zuen Sanzek. Hamar urte egin ditu Oviedon Harri-manek, eta deigarria egiten zaio "Langararen irudia hiriburuan nonahi aurki daitekeelako".


Junkal Guerrerok Langara familiaren izenean eskertza adierazi zuen. Familia handia da eta gehien-gehienak irekiera-ekitaldira hurbildu ziren. "Urte asko pasa dira eta ez da gutxi gorde duguna. Futbolaz harago, garai oso bat ezagutzeko aukera izan dugu, Isidroren bitartez: 36ko Gerra, Eusko Jaurjaritza erbestean, II. Mundu Gerra, euskaldunen emigrazioa Amerikara...". Erakusketaren irekieran, etxekoek eta hurbildu zirenek gozatu ederra hartu zuten. Ikuslego zabalaren esku dago orain. Gomendagarria da, oso.

Erakusketa mamitsua Basteron



Aspaldiko As eta Marca egunkarietako azal bana aurki daitezke erakusketan.

Garaiako As eta Marca kirol egunkarietako azala Golegile aparta izan zen Espainiako eta nazioarteko ligatan, baita Euskal Selekzioarekin ere. Sona handiko futbolaria izan zen andoaindarra.



Real Oviedok utzitako hainbat objektu ikusgai daude. AIURRI

Garai hartako objektuak ikusgai daude Baloiak, zapatilak, agiriak, sinatutako kontratuak, argazkiak... Erakusketa mamitsua antolatu du Udal Artxiboak, Itxaso Mendiluzeren zuzendaritzapean.

Otsaila, lehiaketan hilabetea igerilarientzat

IGERIKETA Buruntzaldea IKT taldeko kideak lehiaketaz lehiaketa ibili dira Euskal Herrian barrena: Gipuzkoako Neguko Txapelketa, Bergaran; Igeriketako III. Abiadura Saria, Zarautzen; eta Neguko Euskal Herriko Junior eta absolutu mailako txapelketa, Iruñean



Eskualdeko Oihan Matute, Ander Martínez eta Ane Meyer Gipuzkoako Neguko Txapelketan izan ziren, Bergaran. BURUNTZALDEA IKT

Erredakzioa ANDOAIN 50 metroko igerilekuan lehiatzea erronka handia izan da Buruntzaldea IKT taldeko kideentzat, "ikasketa handia" finean..

Gipuzkoako neguko txapelketa Otsaileko lehen asteburuan Bergarako Agorrosin kiroldegian Gipuzkoako Neguko Txapelketa ospatu zen. Bertan parte hartu zuten hiru andoaindarrek: Ane Meyer, Oihan Matute eta Ander Martínez. Matute lau

estiloetako 100 eta 400 metroko probatan hirugarren sailkatu zen.

Hurrengo asteburuan, Igeriketako III. Abiadura Saria jokatzen Zarautzen. Laida Guerrero, Ander Martínez eta Ane Meyerrek parte hartu zuten. Azkena, 100 metro librean proban, hirugarren sailkatu zen.

Asteburu berean, Euskal Herriko Junior eta absolutu mailako txapelketa ospatu zen Iruñean. Oihan Matutek otsai-

laren 8an bere marka onenak hobetu zituen 200 metro bular proban (2:48,15) eta lau estiloetako 200 metrokoan (2:28,50). Biharamunean, mutilen 4 estiloetako 200 metroko proban hirugarren postua lortu zuen.

Matutek, 2009 urtean jaioteko artean, 3. postua lortu zuen.

Merezitako atsedena hartuta, Gipuzkoako Kopara begira daude Beterrri-Buruntzako igerilariak.

Goikoplazan aurkeztu dute Berria txapelketaren edizio berria

ERREMONTA Larunbatean emango diote hasiera txapelketari. Finala martxoaren 29an jokatuko da

Erredakzioa ANDOAIN Sei bikote dira bi multzotan banatuta. Tartean dira gure artean aski ezagunak diren Irazu, Eskudero eta Goikoetxea. Talde bakoitzean denek denek aurka jokatuko dute. Iaz bezala, set

formatuan jokatuko dira partidak. Hala, lehendabiziko biak 15 tantora jokatuko dira eta hirugarrena behar izanez gero 8 tantora jokatuko da. Bi set irabazten dituen bikoteak lortuko du garraipena.

Sei bikote lehiatzen

A taldea:

Arluziaga-Martirena.
Irazu-Zubiri.
Susperregi-Apezetxea.

B taldea:

Goikoetxea V-Goikoetxea VI.
Aiestaran VII-Aiestaran VI.
Gurrutzaga-Eskudero.

Finala martxoaren 29an izango da, 15:15etan hasita. Gazte eta etorkizuneko erremontarientzat aukera paregabea eskaintzen du Berria txapelketak.



Lilatoia, artxiboko irudian. AIURRI

Lilatoiaaren edizio berria, igande honetan, Donostiako kaleetan

LASTERKETA Ehunka emakumeren hitzordu seinatuta da, ariketa fisikoa eta aldarrikapena uztartzen dituen

Erredakzioa URNIETA

Igande honetan, Lilatoia lasterketa ezaguna izango da Donostian. 35. edizioa ospatzen du aurten kirol-hitzordu aldarrikapena eta, dagoeneko, beteta dago izen-ematea. Tartean, urtero bezala, eskualdeko makina bat korrikalarik hartuko dute parte.

Aurten ere bost kilometroko itzulia izango du lasterketak, hiriburuko Boulevard-ean hasi eta bukatuta. Goizeko 10:30ean hasiko da lasterketa (bost minutu lehenago, handbike modalitatean), baina, beroketarik egiteko aukera izango da, musikaz lagunduta, 09:30etik aurrera, bertako Kioskoan.

Lasterketa eguneko zerbitzuak

Igandeari begira, parte-hartzaileen zein ikusleen mugikortasuna errazte aldera, errefortzuak izango dira eskualdeko tren- eta

autobus-zerbitzuetan. Horrez gain, beren motxila uzteko aukera izango dute korrikalariak, goizeko 09:00etatik, eguerdiko 12:00ak bitartean, Gipuzkoa plazan egongo den trastelekuan. Behin lasterketa amaituta, Kontxako beheko solairuko kabinetan eskainitako doako dutxa-zerbitzua erabili ahal izango dute, dortsal-zenbakia erakutsita.

Dortsal-bilketa

Hilaren 21ean zein 22an, ostirala eta larunbata, izango dute korrikalariak dortsala jasotzeko aukera, Emakumeen Etxean (11:00-14:00 eta 16:00-20:00) zein Apalategin, dendaren ohiko ordutegien barruan. Horrez gain, hiriburutik kanpo ere dortsalak jasotzeko aukera izango dute parte-hartzaileek, Tolosako Santi Kirolak dendan, esaterako.



Berria txapelketan parte hartuko duten erremontistak. ORIAMENDI

Jon Ander Ubeda ANDOAIN

Egitasmo berria da Andoaingo Lehen Duatloia egitasmoa, xehetasun ugariarekin. Federazioarekin eta agintariekin baimen guztiak lotzen aritu den Zumeatarrako ordezkari da Koldo Velasco. Urnietarra sortzez, Andoain bizi da azken urteotan.

Duatloia lehen edizioa martxan dago Andoainen. Non du sorburua?

Zumeatarra Triatloi Taldeak sortu zen ideia, proba asko desagertu eta berriak aurkezten zirela ikusita. Andoainen antolatzeke pausua eman genuen eta, nagusiki, bi irizpide jarraitu ditugu: lehena, ikusleak bertatik bertara izan asmoz, probaren zati handia herri barruan egitea; bigarrena, hurbilduko diren partaideentzat ibilbide erakargarria egokitzea. Bi irizpide horiek oinarri aritu gara lanean, azken hilabeteetan.

Lan handia egin al duzue proba aurkeztu aurretik?

Bai. 2023aren amaiera aldera lantzen hasi ginen lantzen ideia, eta iazko maiatzetik hona lan-keta handia egin dugu.

Sprint deritzon duatloi proba da. Xehetasunak ematerik bai?

Partaideak, lehenik eta behin, bost kilometro egin behar ditu korrika Goikoplaza eta Txitibar plaza artean. Ibilbidean Kale Nagusia eta Kaleberria zeharkatuko ditu. Beraz, ikusleek probaz gozatzeko aukera proposa izango dute. Lehen proba amaituta, Goikoplazan bizikleta hartu eta Olagain aldetik Otietara joango dira. Ibilbide osoa errepidean izango da. Ibilbide hori hamar kilometrokoa da, beraz, bi itzuli egin beharko dituzte. Eta, amaitzeko, azken korrika saioa egingo dute Goikoplazan hasi eta bertan bukatzeko.

Probaren aurrean ilusioa eta ardurra, bietatik izango duzuela pentsatzen dut.

Halaxe da. Ilusio berezia dugu, are gehiago, lehen edizioa delako. Eta ardura badugu, noski, partaideekiko eta ibilbidearekiko. Oinezkoen eta autoen joan-etorrian eragina izango du probak, beraz, adi egon beharko dugu. Ardura handia somatzen dugu gure baitan, baina ardura handi hori sentitu gabe ezinezkoa da antzekorik antolatzea.

Duatloian eskarmentua dutenei begira, nola deskribatuko zenuke martxoaren 15eko proba?



Koldo Velasco sortzez urnietarra da, eta Andoain bizi da azken urteotan. AIURRI

"Ilusio handia dugu, bereziki, Andoaingo Lehen Duatloia delako"

KOLDO VELASCO ZUMEATARRA TRIATLOI TALDEKO ORDEZKARIA

DUATLOIA Martxoaren 15ean Andoaingo Lehen Duatloia egingo da eta probaren zuzendari teknikoa da. Xehetasun ugari eskaini dizkio Aiurri astekariari

Bizikletan egin beharreko ibilbidea nahiko gogorra da, beraz, bizikleta gainean hobeto moldatzen denak tartea irekitzeko aukera izango du. Dezenteko aldapa du ibilbideak, gorabehe-

ratsua da oso eta arnasa hartzeko tarterik ez dago ia. **Zein izaten da gako duatloi batean? Bi kirol jardura baitira –lasterka eta bizikleta gainean–, baina hiru proba dira.**

Nire kasuan, bizikleta hartzeko unean indarra izan behar da watioak mugiarazteko. Eta, bestetik, ezin da dena eman bizikleta gainean. Azken probarako indarrak gorde behar dira.

Gogorra al da azken zatia?

Nire kasuan, bizikleta gainean gehiegizko emanez gero, kosta egiten zait hirugarren ariketari neurria hartzea. Trantsizioak egiten asmatzea premiazkoa da, entrenamenduen eta eskarmen-tuaren poderioz lortzen dena.

Zenbat partaide espero duzue? Andoaindik eta Urnietatik partaideak espero dituzue?

200 partaide, horixe da gehieneko kopurua. Ehundik gora batzea lortzen badugu, oso pozik egongo gara. Eta inguruko herrieta-koak baditugu, bai! Lehen kolpean 30 lagunek eman zuten izena. Tartean, gertuko kirolariak.

Baimen-eskaerak, trafikoari loturiko xehetasunak... Burukomin handiko lana al da?

Igaro ditugu hilabete okerrenak, buruhauste handikoa baita taimainako lasterketa antolatzea. **Lehenengo. Horixe da iragarri duzuen. Jarraipena izango duen seinale...**

Hori da asmoa. Jarraipena ematea gustatuko litzaiguke.

Partaideen intereskoa izan ohi da izen-ematearekin batera banatu ohi den poltsa. Zer aurkituko du partaideak bertan?

Galtzerdi pareta, Gaztañaga eta Mizpiradiko sagardoa, Lixone markako xaboia, Metta markako bidoia eta Keepgoing markako gelak.

Duatloian ez dabilenarentzat proposa da etxeko proba? Denboraz dabilta proban parte hartzera animatzeko?

Kirola egitera ohituta dagoen edonor –bizikleta gainean ibiltzera ohituta dagoena eta korrika dabilena–, proba egiteko gai da. Denbora aldetik, proba burutzeko malgu jokatuko dugu. Horiei guztiei begira, Open delako tartean, sari berezia jasoko du lehen andoaindarrak.

Proba gauzatzeko boluntarioen premia duzue. Zenbat behar dituzue, denera?

Errepideko zainketa-lanak egiteko 55-60 lagun behar ditugu. Horiez gain, dortsal-banaketan, irteeran eta helmugan beharko ditugu lagun gehiago. Denera, 70-80 lagun. Laster biltzekoak gara haiekin guztiekin.

Izen-ematea
Kirolariak, rockthesport webgunean; Boluntarioak, QR kodearen bidez.



Andoaindarrak, Gernikako Winter Series lehiaketako animatzaileak

ZESTA PUNTA Esperientzia zirraragarria izan zen Gaztelekuko kideentzat: "Profesionalen partidaren aurretik, eta seten tartean, jokatzeko aritu ziren jendez gainezka zegoen Gernikako frontoian. Profesionalekin argazkia atera eta partidaz ikustez gain, frontoian zegoen giro paregabeaz gozatzeko aukera izan zuten. ETB1-n eta guzti azaldu ziren Andoaingo puntista gazteak. Esperientzia ikaragarria bizi izan zuten!".



GAZTELEKU

Sailkapenaren goialdean jarraitzeko garaipena

ESKUBALOIA Leizaran Lanbroa taldea larunbatean ariko da, arratsaldeko 18:00tan hasita, Allurralde kiroldegian

Erredakzioa ANDOAIN

Euskal Ligako hamabosgarren jardunaldian Andoaingo taldeak garrantzi handiko garaipena eskuratu zuen, sailkapenaren lehen postuetan jarraitzeko. Aurreko bi jardunaldietan galdu ostean, hirugarren saikeran iritsi ziren bi puntuak. Eta asteburu honetan puntuak pilatzen jarraitzeko aukera berria izango dute, etxean ariko baita sailkapenaren atzealdean geratu den Egiaren aurka. Hirugarren postua lortu asmoz, borroka estua dago hiru talderen artean.

ESKUBALOIA

EUSKADIKO LIGA, 15. jardunaldia:
SAN ADRIAN-LEIZARAN LANBROA 22-25

SAILKAPENA

1	URDANETA	28 p.
2	EREINTZA	26 p.
3	MALAPE ELGOIBAR	20 p.
4	URDAIBAI BILBOATS	20 p.
4	LEIZARAN LANBROA	18 p.
6	IRAULI BOSTEKO	14 p.

16. jardunaldia. Otsailak 22, larunbata:
LEIZARAN LANBROA-EGIA 18:00

*Jardunaldi honetan ere Malape eta Urdaibai elkarren aurka ariko dira.

ESKUBALOIA Leizaran Ernio taldea, igandean Allurralden

Euskadiko Gizonezkoen senior txapelketa 18. jardunaldira iritsi da. Sei baino ez dira geratzen ligari amaiera emateko eta Leizaran Ernio Inmobiliaria taldeak jaitziera saihesteko lanean dihardu. Aurreko bi jardunaldietan porrota ezagutu du, azkena Basaurin (29-20). Igande honetan garaipena eskuratzeko aukera eta premia badu, sailkapenean gorantz egin asmoz. Erromoko eskubaloit taldearen bisitaldia jasoko dute andoaindarrek, igande eguerdian (12:30). Bi taldeen arteko diferentzia 3 puntukoa baino ez da. Une honetan, Erromoko taldea 9. postuan sailkatuta dago. Andoaingoa, berriz, 11. postuan.

FUTBOLA Lidergotzari eusten dio Euskaldunak

Andoaingo lehen taldeak sailkapeneko azken postuan dagoen Billabona taldearen bisitaldia jaso zuen, aurreko asteburuan. Emaizta argia lortu zuen (3-0), azken bi asteetako gorabeherak bideratzeko lagungarri izan zaiona. Izan ere, berdinketa eta porrota erdietsi zituzten aurreko bi asteburuetan. Maila hauean, aurrealdean jarraitu nahi bada, irabaztea ia-ia asteroko lege bilakatu da. Kasu honetan, Roteta eta Orioko taldeak oso gainean daudelako. Denboraldiko bi heren igarota, azken txanpari ekingo diote orain. Euskaldunak puntuak pilatzeko aukera du, larunbat honetan, Michelin zelaian (17:15).

Igoera fasera sailkatzeko lanean ari da Urnieta

ESKUBALOIA Urnieta Artola laugarren postuan da, eta igandean hirugarrenaren kantxan ariko da

Erredakzioa URNIETA

Urnieta Artola Harategia Lurraldeko 1. mailako taldeak 4. postuan darrai, Euskadiko Txapelketarako igoera fasera sailkatzeko aukerekin. Aurreko asteburuan zarautzarrak 36-26 garaitu zituzten. Sei jardunaldi baino ez dira geratzen denboraldia amaitzeko eta emozioa ez da faltako. Asteburu honetan hasita! Igande goizean Eibarren ariko baitira, sailkapenean hirugarrenaren aurka.

ESKUBALOIA

LURRALDEKO 1. MAILA, 16. jardunaldia:
UKE ARTOLA-ARIZTBATALDE 36-26

SAILKAPENA

1	HONDARRIBIA BIDASOA	28 p.
2	DONIBANE	23 p.
3	MEK EIBAR	21 p.
4	URNIETA ARTOLA	20 p.

17. jardunaldia. Otsailak 23, igandea:
MEK EIBAR-URNIETA 10:00

Leizaran-Urnieta Guria, larunbatean Allurralden

Lurraldeko bigarren mailan garaipen berria eskuratu zuten urnietarrek. Larunbat honetan, 16:30ean hasita, Leizaranen aurka ariko dira. Urnieta 2. da sailkapenean eta, Andoain, 3.

FUTBOLA Zazpigarren postuan amaitu du liga Urnietako taldeak

Emakumezkoen Gorengo Erregerial mailan Urnietako neskek bosgarren postua lortzea helburu zuten, eta gertu geratu dira. Beren esku zegoen, irabaztea lehen pausoa baitzen. Azkeneko, 3-3 amaitu zen Oriokoren aurkako partida. Goierri Gorri B taldeak lortu du 5. postua, Ilin-txa eta Urnieta taldeekin borrokaldira estua izan eta gero.



Urnietako
udala



andoainDARRA
euskaraz



Tailerrak, udalekuak... ibilbide oparoa osatu du Izartxo aisialdi taldeak hogei urteotan. LSB

Izartxo aisialdi taldearen XX. urteurrena

Ospakizun urtea du La Salle Berrozpeko Izartxo aisialdi-taldeak, hogei urteko ibilbidea osatzen baitu, aurten. Hori dela eta, askotariko hitzorduak iragarri ditu taldeak 2025ean, urteurrenaren harira: ludoteka, zozketak, bertsoak...

Erredakzioa ANDOAIN

Egun, 180 parte-hartzaile eta 80 begirale baino gehiago ditu Izartxo aisialdi taldeak. Orotara, hiru adin-tartetan banatzen dute beren jarduna: batetik, 4 eta 7 urte bitarteko haurrak; bestetik, 8 eta 12 urte bitarteko gaztetxoak; eta, azkenik, 13 eta 15 urte bitarteko nerabeak. Hala, multzo bakoitzari egokitutako ekintzak antolatu dituzte, urte hauetan guztietan, haurrei zein beren familiei bideratuta. Horrez gain, ikasleek aisialdi-taldean egiten

duten bideari jarraipena emateko asmoz, begirale izateko aukera eskaintzen zaie hamasei urtetik aurrerakoei, boluntario-lanetan hasi aurretik, formakuntza jasotzeko aukerarekin. Bertako arduraduna da Yanire

EGUN, HIRU ADIN-TARTETAN BANATZEN DA IZARTXO AISIALDI TALDEAREN JARDUNA

Mosquero, eta esker hitzak izan ditu proiektutik gertu egon diren andoaindar guztientzat: "Jende asko eta asko igaro da taldetik, eta, hortaz, zaila da gure proiektuan beren aletxoak jarri duten pertsonak zenbatzea".

20 urte geroago, hasierako helburu eta balio berekin jarraitzen du Izartxok: "Talde baten partaide izaten erakutsi nahi diegu baloreak landuz: elkarbanatu, errespetua, laguntasuna, elkartzasuna...". Euskara bazterrean utzi gabe.

Hogei urteak irudi bidez



2014an erakusketa antolatu zuten Urigainen. AIURRI

Ibilbide oparoa Hogei urteren bueltan ehunka dira Izartxo aisialdi taldeko kide izandako herrikideak. Argazkian, Izartxoren hamargarren urteurrena ospatzeko antolatu zuten erakusketa. Urigainen ikusgai izan zen 2014ko hasieran.



Begirale taldea, artxiboko irudian. AIURRI

Begiraleak Hogei urteren bueltan badira Izartxoko haur izan eta, gerora, begirale bilakatu direnak. Haurren garapenean garrantzi handikoak izan dira begiraleak. Argazkian, Izartxoren ibilbidean esanguratsuak diren hainbat partaide.



Kanpezuko udalekuak, La Salle Berrozperen eskaintza udan. LSB

Udalekuak Andoaingo gaztetxo asko udalekuez gozatzen aritu da urte hauetan guztietan, natur gune paregabean. Aurreko belaunaldietako askoren modura, egungo gaztetxoek ere Arabako Kanpezu herrian udaz eta aisiaz gozatzen dute.

HITZORDUAK

ASTEARTE EGUERDIA BAINO LEHEN IGORRI HITZORDUAK. Tel.: 943 300 732 / andoain@aiurri.eus

ERAKUSKETA

ANDOAIN Langara

Futbolari ezaguna ardatz hartuta.
Ohiko ordutegia.
Bastero. Erakusketa-gela.

KALDEREROAK

ANDOAIN Kalderero txikiak

15:00 Ondarreta Herri Eskolaren
kalejira.

17:00 Festa Ludotekan: Karaokea
eta kaxa magikoa.

Otsailak 21, ostirala.

ANDOAIN Kaldereroak

16:30 Musikarien emanaldia
adinekoren egoitzan.

17:00 Konpartsa Arrate plazatik
abiatuko da. Ibilbidea: Arrate,
Goikoplaza, Zumea plaza.

18:00 Kanpalekua, txokolate-beroa
eta adierazpena Goikoplazan.

Otsailak 22, larunbata.

MUSIKA

ANDOAIN Kanbalatxe tango

Bastero-Kafe zikloa: Musika, dantza.
Otsailak 21, ostirala.

19:00, Bastero.



Modus Operandi taldea. MODUS OPERANDI

ANDOAIN Jaialdia Andoaingo Gaztetxean

Egun osoko elkartasun ospakizuna
iragarri dute Andoainen,
larunbaterako.

11:30 Triki-kalejira Zumea plazatik
Gaztetxera.

12:00 Porrotx eta Zapotxin: Irri
kanta koloretsua.

18:00-20:00 Pintxo-potea.

19:00 Errifen zozketa.

20:00 Kontzertua:

Gaizkiñe, Josetxu Piperrak
eta Modus Operandi.

Ondoren, DJ Jotatxo.

Otsailak 22, larunbata.

IKUSKIZUNA

ANDOAIN Langara, gogoan

"Osaba Isidroren maleta".

Otsailak 23, igandea.

12:00, Bastero.

ANTZEZLANA

URNIETA "Esperando a Godot"

Atalaya konpainia.

Otsailak 23, igandea.

19:00, Sarobe.

ZINEMA


**ANDOAIN****BASTERO****Bridget Jones: Loca por el**

Otsailak 22,
larunbata. 19:30.

Otsailak 23,
igandea. 19:30.

Otsailak 24,
astelehena.
17:00, 19:30.

**Los
exploradores**
Otsailak 22,
larunbata. 17:00.
Otsailak 23,
igandea. 17:00.



SINOPSIS

Bridget Jones: Loca por el

Zuzendaria: Michael Morris. **Aktoreak:** Renee Zellweger, Hugh Grant, Emma Thompson, Chiwetel Ejiofor, Leo Woodall, Jim Broadbent, Isla Fisher. **Herrialdea:** Britainia Handia. **Urtea:** 2025. **Hizkuntza:** Gaztelania. **Generoa:** Komedia. **Iraupena:** 126 m.

Bridget Jonesen film berriena

Bridget bakarrik bizi da, lau urte lehenago alargundu ondoren. Mark senarra misio humanitario batean galdu zuen Sudanen. Bikotea topatzeko app batekin proba egin du, eta horren bidez bera baino gazteagoa den pertsona ameslaria ezagutu du.



Zozketa



**AiurriKIDeen artean
2 sarrera bikoitz
zozkatuko ditugu**

Parte hartzeko modua:

Idatzi "**kontzertua**",

zure izen-abizenak eta bidali:

* **Whatsappa:** 619 163 537

* **E-posta:** diseinua@aiurri.eus

Aiurriko
harpidedun
izateak saria
dakar

**Verde Prato
Anari**

**Martxoak 7, ostirala
19:30. Bastero,
ANDOAIN**

Okm:
batzen
gaituen
distantzia

Egin zaitez AiurriKIDE

**AIURRI
KIDE**

Anbrosia Olabide eraikineko taberna kudeatzeko lehiaketa

Onartzean da Andoaingo erretiratuen etxeko taberna-kafetegi zerbitzua kudeatzeko prozesua

Erredakzioa ANDOAIN

Ezusterik ezean, ostiral honetako Tokiko Gobernu Batzarrean Anbrosia Olabide eraikinean dagoen taberna-kafetegi kudeatzeko lehiaketa publikoari hasiera emango diote.

Interesdunek mbermejo@andoain.eus helbide elektronikoan jasoko dituzte argibideak. Baldintza tekniko eta administrati- boen pleguari buruzko informazioa kontsulta dezakete, bestalde, Andoain.eus udalaren web-

gunean, Kontratatzalearen Profila atalean. Udalak, ohar bidez adierazi duenez, "espazio aktiboa da, erabiltzaileek eguneko menua, platerak, eta pintxoak eskatzen dituztenak...". Hamabostean behin dantzaldia egiten da Anbrosia Olabide eraikineko sarreran, 18:00etatik 20:00etara. Asteazkenero, bestalde, hamai- ketakoa eskaintzen diete Ibili Andoain dinamikan parte hartu dutenei. Kontratuak bi urteko iraupena izango du, beste bi urte- z luertzeko aukerarekin.



Andoain Ibili ekimeneko partaideak, asteazkeneko saioan, kafetegian. AIURRI

ANTZERKIA



URNIETA

SAROB

Esperando a Godot

Otsailak 23, igandea. 19:30.

SINOPSISIA

Esperando a Godot

Egilea: Samuel Beckett. **Zuzendaria:** Ricardo Iniesta eta Sario Tellez. **Aktoreak:** Vladimir (M. Asensio), Estragoia (J. Arenal), Pozzo (M. Reyes) eta Lucky (A. Casado). **Hizkuntza:** Gaztelania. **Prezioa:** 7 euro. **Iraupena:** 90 m.

Antzerkiaren klasikoetako bat Saroben, igande honetan

Umorea, poesia, samurtasuna eta tentsioa uztartuta, "Esperando a Godot" XX. mendeko antzezlan esanguratsuenetako bat da, Atalaya Espainiako konpainia ospetsuenetako baten eskutik oholtzaratuko dena. Testuak egilearekiko fidelitatez jarraitzen du –Samuel Beckett ez baitu ez bertsiorik ez egokitzapenik onartzen–, eta erritmo biziarekin. Atalaya sinesgarritasunez jantzi ditu antzezlan ezagunaren pertsonaiak: Vladimir, Estragon, Pozzo eta Lucky. Haien unibertsoak, egileak eskatzen zuen bezala, ez du bortxazko karakterizaziorik onartzen. Pertsonaia babesgabeak, egoera oso zailtan ere altzatzeko gai direla gogorarazten digutenak. Klasiko unibertsal bat, oroimen kolektiboaren parte dena.



Kantu-afaria egin zen, iaz, Altuna sagardotegian. AIURRI

Kantu-liburuxka argitaratzean da Aiurri, datozen egunotan

Txotx-garaian zabaltzen da, ea euskal kantagintzaren ale ugari jasotzen du

Erredakzioa URNIETA

Txotx garaia bertan da eta makina bat bazkari eta afari egiten da sagardotegietan. Asko eta asko talde handitan egin ohi dira eta ez dira gutxi kantatzeari ekiten diotenak. Euskal kantagintzari bultzada eman asmoz, urteak

dira Aiurrik kantu liburuxka argitaratzen duela. 2025eko argitaratzean da eta eskuratzeko bi modu izango dira. Aiurriko harpidedunek etxean bertan jasoko dute. Eta, bestalde, inguruko hainbat sagardotegian eskuratu ahal izango da.

ZORION AGURRAK



ANDOAIN Zorionak Naroa! Naroak 10 urte beteko ditu otsailaren 19an. Etxeko txikia haunditzen ari da! Asko maite zaitugu maitia!

MERKATU TXIKIA

ZEINU HIZKUNTZA

Zeinu hizkuntza praktikatzeko pertsonen bila nabil. Gorrak badira hobeto! 650341108.

SALMENTA

Bi ohe artikulatu salgai, koltxoi eta somierrek barne. Berri-berriak. 664 462 517.

SALMENTA

Edariak hozteko hozkailu txikia. Neurriak: zabalera 0,48, sakonera 0,44 eta altuera 0,63. Prezioa 55 euro. Pili: 610 953 258.

SALMENTA

Emakumeentzako txirinda. 60 euro. Harremanetarako: otaegi.pili@gmail.com Pili: 610 953 258.

Intereseko iragarkia argitaratu nahi izanez gero bidali mezu bat diseinua@aiurri.eus helbidera edota whatsapppe: 619 163 537

Elikadura osasuntsua hizpide izango dute, Urigainen

Maddi Etxeberría nutrizionistak emango du hitzaldia, AEK-k antolatuta. Ostiral honetan, 17:30ean hasita.

Erredakzioa ANDOAIN

Plater bat hiru atal nagusitan bisualki zatitzea, horretan datza Harvard platera. Eta, nola ez, elikadura osasungarria sustatzea da helburua. 2011n Harvardeko Unibertsitateko Osasun Publi-

koko Eskolan sortu zen, gehiegizko pisuaren eta obesitatearen prebalentzia handiak eraginda. "Plateraren metodoa", "plateraren dieta" edo "plater osasungarria" ere esaten zaio metodo honi.



Maddi Etxeberría. AIURRI

Edonork, edonorekin, edonoiz

Gipuzkoa Arigune proiektua aurkeztu dute, euskararen ulermena orokortzeko eta erabilera aktibatzen helburuarekin. Aurreko ostiralean aurkeztu zuten proiektua, Donostiako Tabakalera kultura zentroan

KOMUNITATEA

TOKIKOM / GUKA

1980ko hamarkadan loratutako euskara elkarten indarrak batzeko sortu zuten 1996. urtean Euskaltzaleen Topagunea. Elkartaren webguneko informazioaren arabera, "sortu zenetik gaur egunera bitartean, Topagunearen funtzio nagusia izan da elkarte horien zerbitzuetara egotea, baita nazio mailako erakundea izatea, euskarari buruzko pentsamendua eta diskurtsoak sortzeko eta gizartratze gaitasunean indartzea, eta bazkideen formazio eta harreko mekanismoak eratzea ere".

Iaz, baina, helburu horiek bete samartuta, "ekarpenak egiteko modu berriak" aurkitzeko asmoarekin eta "euskarak mugimendua behar duela sinetsita", topagune izatetik mugimendu izatera igaro zen elkarteak, Taupa izena hartuta. Aipatutako helburu hori betetze aldera, talde horrek, Gipuzkoako Foru Aldundiarekin batera eta Soziolinguistika Klusterraren eta Badalaben laguntzarekin, Gipuzkoa Arigune egitasmoa jarri du martxan. Aurreko ostiralean aurkeztu zuten proiektua, Donostiako Tabakalera kultura zentroan.



Taupa mugimenduko Mikel Ozaita eta Jasone Mendizabal. Erdian, Garbiñe Mendizabal Gipuzkoako Foru Aldundiko Hizkuntza Berdintasunerako zuzendaria. GUKA

Egitasmoaren abiapuntura iristeko, 2020. urtera egin behar da atzera. Garbiñe Mendizabal Gipuzkoako Foru Aldundiko Hizkuntza Berdintasunerako zuzendariak azaldukoaren arabera, 2020. urtean, Pello Jauregi soziolinguistak galdera bat egin zion orduan Gipuzkoako ahaldu nagusia zen Markel Olanori, lehen horrek Abbadia saria jaso zuenean: "Noizko Gipuzkoa osoa arigune?". "Erronkari heldu zion Olanok, eta horren emaitza da ilusio handia pizten digun proiektu hau. Amets

bat litzateke Gipuzkoa osoa arigune izatea", gehitu du aldundiko kideak.

Zer da, ordea, Gipuzkoa Arigune? Jasone Mendizabal da proiektuaren koordinatzaile nagusia, eta haren hitzetan, "etorkizuneko ikuspegi bat da non edonork, edonorekin eta edonoiz euskaraz mintzatzeko aukera izango duen". Hori gertatzeko gutxieneko bi baldintza aipatu ditu Mendizabalek: bata, euskara erabiltzeko gutxieneko ulermena izatea bi aldeek, eta, bestea, euskaraz hitz egiteko

gogoia edo grina edukitzea. Hizkuntza Berdintasunerako zuzendariaren arabera, egitasmoa martxan jartzeko leku aproposena da Gipuzkoa, "soziolinguistika aldetik abantaila gehien dituen lurraldea delako". Ideia horri jarraikita, Taupako zuzendariak azaldu du "ezagutza datuek aspalditxotik goia jo dutela" -eremu euskaldunetan galerekin, gainera-. "Horregatik, testuinguruak eskatzen zigan zerbait desberdina egitea, eta euskalgintza instituzional eta sozial guztia ideiei bueltaka hasi ginen", gehitu du.

Metodologia berritzailea

Proiektuak lau ardatz izango ditu, Taupako zuzendariaren arabera. Lehenik eta behin, komunitatearen parte hartzea; horretarako, talde dinamikak sustatuko dituzte herriz herri, eta baliabide horiek esku-eskura jarriko dizkiete herritarrei. Bigarren elementua litzateke parte hartze kolektiboa, hirugarrena adostasun zabala, eta, azkenik, metodologia berritzaileak leudeke. Azken horri dagokionez, Mikel Ozaita Taupako koordinatzaileak eman ditu azalpenak: Aldahitz ikerketa jarriko dute martxan. Horren hipotesia da hitz egiten hasteko ez dela ezinbestekoa euskaraz ongi hitz egiten jakitea; ulertzea nahikoa izan daitekeela bestea euskaraz hitz egiten hasteko, betiere, horretarako testuingurua sortuz gero.

Horretarako, hiru metodologia ari dira prototipatzen, pilotatzen eta garatzen: arlo informalean probatzen hasi diren Uler-saioak -ulermena lortzea da xedea; 120 ordutan, B1 ulermen mailara iristea-; Ulerrizketa -euskaraz ulertzeko tarteko maila dutenen

eta maila ona dutenen arteko elkarrizketak sustatzen dira-; eta Eusle -euskara erabiltzeko konpromisoa hartzeko; Euskaraldiako rolak dira horren adibide-. Ozaitak azaldu du herritarren arteko kooperazioa dela metodologia horien bereizgarrietako bat. "Hiztunek elkarren arteko harremanetan eta elkar lagunduz garatzen dituzte gaitasun berriak, eta gaitasun horiek praktika berri bilakatzeko testuinguru bat ere topatzen dute, elkarri hizkuntza ohiturak aldatzeko zilegatasuna aitortuz".

Hiru leku probarako

Momentuz, esperimentazio fasean dago proiektua, eta lehen pauso horiek emateko Gipuzkoako hiru leku aukeratu dituzte: Donostiako Añorga auzoa, Aia eta Antzuola. Ez dituzte ausaz aukeratu, baizik eta hainbat arrazoigatik. Alde batetik, "herri edo auzo koxkorak" direlako horiek, eta badituztelako euren azpiegiturak. Bestetik, eskualde desberdinetan daudelako, eta, azkenik, ezaugarri ezberdinak dituztelako: batzuk landa eremutik gertuago daude besteak baino, batzuk herriak dira, beste auzoa... Gainera, gune horietako alderdiekin, eragileekin eta norbanakoekin dagoeneko egin dituzte azalpen saioak. Hiru leku horietan lanketa egin eta gero, Ozaitak gaineratu du asmoa dela "plangintza orokor bat osatzea".

ESPERIMENTAZIO FASEAN DAGO PROIEKTUA, AÑORGA AUZOAN, AIAN ETA ANTZUOLAN

Aiurri, entitatea Euskaraldian

Aiurri-Eroitzeko lantaldeak Euskaraldiaren laugarren edizioan parte hartuko du. Dagoeneko entitate modura izena eman du. Euskaraldiarekin bat egiteaz gain, papereko nahiz internet bidezko edizioetan atal bereziak sortuko ditu, tokian tokiko egitasmoei hauspoa emateko. Era berean, erredakzioa bere osotasunean euskaraz hitz egiteko arigunea izango da.



EUSKARALDIA

Martan dira Andoingo eta Urrietako batzordeak

Han-hemenga Euskaraldiko tokiko batzordeak osatzen hasi dira. Urnietan hainbat eragileetako ordezkariak elkartzen hasi dira. Laster, herritargoari zabalduko diote parte hartzeko aukera. Andoainean, bestalde, hilaren 5ean egin zuten lehen bilera Urigainen eta ostegun honetarako deituta dago bigarren bilera. 18:30ean, Urigainen ere.